

# Abolizioa



**JUNE FERNÁNDEZ**  
KAZETARIA

**B**ilboko Aste Nagusian C. Tanganaren kontzertua bertan behera uztearen erabakia izan zen udako polemika feminista biziena. Oporretatik bueltan, beste ekitaldi baten kontrako boikota izan dugu eztabaidagai sare sozialetan: A Coruñaako Unibertsitatean sexu langileen elkarteek antolatutako jardunaldi batzuk, alegia. Prostituzioaren abolizioaren aldeko sektoreen ustez, halako kongresu bat ospatzeak sexu esplotazioaren legitimazioa dakar. *#UniversidadSinProstitución* traola erabili dute, Errektoretzak presioen aurrean amore eman duen arte. Erabaki horrek ehundaka irakaslek sinatutako manifestu baten erantzuna jaso du, *#UniversidadSinCensura* traolarekin.

Prostituzioa izan da historikoki mugimendu feminista gehien polarizatu duen gaia. Egun, sare sozialen dinamikek polarizazio hori are gehiago elikatzen eta ikusgai egiten ari dira. Txio batean ez dago ñabardura handiarekin debatitzeko aukerarik. 280 karaktere badira nahikoa, ordea, pentsaera bakarra inposatzeko. Abolizionista zaratsuenek George W. Bushen erretorika berdintsua erabiltzen ari dira sareetan: “Nire alboan ez dagoena terrorista da” esaldian, aldatu “terrorista” eta jarri “emakumeen salerosketaren defendatzailea”.

Haurdunaldi subrogatuaren gaiari ere aplikatu diote eskema hori, errealitate berri eta zeharo konplexu baten inguruko eztabaida pobretuz. Zalantzaren bat adierazten badugu edota bestelako iritziak entzuteko beharra, emakumeen merkantilizazioaren alde egitea leporatuko digute.

Bitartean, bestelako abolizionismoek ez dute horren besteko oihartzu-



ANTTON OLARIAGA

nik. Angela Davisek borrokatzen duen abolizionismoa –kartzelarena, alegia– dut gogoan. Bere esanetan, genero indarkeriari irtenbidea emateko, ulertu behar dugu estatu indarkeriarekin duen lotura. Davisek ezin hobeto azaltzen du kartzelak sexu, arraza eta klase zapalkuntzetan oinarritutako instituzio patriarkalak direla.

Sexu salerosketa esklabutza mota bat da, duda barik. Baina badago are normalizatuagoa eta onartua dagoen esklabutza garaikide mota bat: barne etxeko-langileen erregimena. Zergatik ez da agertu erregimen honen abolizioaren aldeko plataforma feminista-rik? Seguru asko, aldarri horrek gure egunerokoan deserosotasun eta gatazka handia eragingo zuelako. Nola izango naiz koherente, baldin eta nire familiak aitite zaintzeko barne zaintzaile bat kontratatu badu?

Duela urte batzuk, ospe handiko filosofo feminista abolizionista baten hitzaldia entzun nuen. Oso ondo azaldu zuen prostituzioa instituzio patriarkal eta kapitalista bat dela eta gizonen heziketa matxistan pisu sinboliko itzela duela. Bere hitzaldia txalotu nuen, baina galdetu nion ea ez legokeen ondo beste arlotan ere emakumeen giza eskubideen urraketa bortitzak horren sutuki salatzea. Andaluzian marrubiak biltzen dituzten Marokoko langileen esplotazioa –sexu jazarpena barne– aipatu nion. Emakume txuri pribilegiatu horren erantzuna haxe izan zen: “Ezin duzu alderatu landan marrubitoak biltzea zakilak jatearekin, neska!”.

Feminista txuri eta pribilegiatuok sare sozialetan gure desadostasunak muturrera eramaten dihardugun bitartean, prostitutek, emakume presoek, etxe barneko langileek eta marrubi so-roetako langileek bizi dituzten sexu/ arraza/klase indarkerien aurka antolatzen jarraitzen dute. Horieta batak bakarrik bihurtu ditugu gure eztabaida antzuen objektu, baina guztiak dira beren borroken protagonistak. ●